

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025 Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	Prueba 2A, defensa de la programación didáctica / ámbito ESO / Bachillerato 2A proba, programazio didaktikoaren defentsa / DBH/Batxilergoa
Resolución 249/2024, de 15 de octubre / 249/2024 Ebazpena, urriaren 15ekoa	

0590 - FÍSICA Y QUÍMICA / EUSKERA

0590 - FISIKA ETA KIMIKA / EUSKARA

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Baldintzak - (Descuento / murrizketa)	5 ptos. / puntu
Baldintza formalak betetzen ez baditu Programazio didaktikoak eta, egokia denean, urteko lan planak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafikoa, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki oinetan, orri oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoa ez den beste neurri bat erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. 10 unitate didaktiko izanen ditu gutxienez edo, egokia denean, 10 lan unitate. Unitateak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Urteko lan planaren kasuan, 10 unitate didaktikoak ordezkatu egingen dira esku hartze psikopedagogikoko 10 programarekin. Programak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak lan planaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Programazio didaktikoaren / urteko lan planaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.	Probaren A zatiaren balioaren %50eko murrizketa
Antolaketa	2 ptos. / puntu
Programazioaren aurkezpena, justifikazioa eta curriculumaren araberako testuinguru ematea, VII. eranskinean ezarritako baldintzen arabera. 1.-Aurkezpena. 2.-Justifikazioa. 3.-Curriculumaren araberako testuinguru.	1 pto. / puntu
Ongi planteatuak egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika. 1.- Elementuen arteko koherentzia. 2.- Edukien sekuentziario egokia. 3.- Espazio eta denbora antolaketa, eta ikasleen taldekatzea.	1 pto. / puntu

Eduki teknikoa	2 ptos. / puntu
Programazioak zehazten ditu araudian ezarrita dauden curriculumeko elementuak, VII. eranskinean ezarritako baldintzen arabera, eta programazioari dagokion hezkuntza etapako mailarekin bat etorriz. 1.-Curriculumeko elementuak. 2.-Hezkuntza etapako maila eta ikasleen ezaugarriak. 3.-Curriculumeko elementuen eta hezkuntza etapako mailaren arteko koherentzia.	0,5 ptos. / puntu
Programazioan zehaztuko dira ikaskuntza helburuak, gaitasunak (funtsezkoak eta espezifikokoak), deskriptore operatiboak, oinarritzko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak, bai funtsezko gaitasun zein gaitasun espezifikokoak eskuratzekoak eta baita helburuak erdiestekoak ere. Horrez gain, DBH eta Lanbide Heziketako oinarritzko mailako heziketa zikloen kasuan, programazioak zehaztuko du gainerako elementuek irteerako profilari egiten dioten ekarpena. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko programazioen kasuan, programazioan zehaztuko dira ikaskuntza helburuak, gaitasunak (funtsezkoak eta espezifikokoak), deskriptore operatiboak, oinarritzko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak, bai funtsezko gaitasun zein gaitasun espezifikokoak eskuratzekoak eta baita helburuak erdiestekoak ere. Horrez gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketako oinarritzko mailako heziketa zikloen kasuan, programazioak zehaztuko du gainerako elementuek irteerako profilari egiten dioten ekarpena. 1.-Curriculumeko elementuak. 2.-Elementuen arteko koherentzia eta hezkuntza etapako mailarekin duten erlazioa. 3.-Irteera profila.	1,5 ptos. / puntu
Eduki didaktikoa	4,5 ptos. / puntu
Ikasmaitarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak. 1.-Metodologia. 2.-Materialak eta baliabide didaktikoak. 3.-IKT-ak. 4.-Parte hartzea eta elkarreragina. 5.-Ikaskuntza esanguratsua.	1,5 ptos. / puntu
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.	1,5 ptos. / puntu
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriak.	1,5 ptos. / puntu
Komunikazio gaitasuna	1,5 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.	1,2 ptos. / puntu
Ebaluazio epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.	0,3 ptos. / puntu
Programazio plagiatuak aurkeztuz gero edo zenbait izangaik programazio didaktiko bera aurkeztuz gero, izangaia edo izangaia hautapen prozeduratik kanpo geldituko dira.	